

## EDITORIALA

### Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Gaurkoan, *Uztaro* 53 aurkeztera natorkizue. Ez da erabat ohikoa esku artean dugun zenbakia, lehen bi artikulua izan ezik, monografiko baten lehen zatia baita. Iazko udako ikastaroetan Biarritzeko saioan Zientzia Politikoak sailekoek “Demokrazia parte-hartzailearen” gaia jorratu baitzuten handizki. Dena dela, monografikoaren sarrera argi eta garbi seinalaturik doa, I. Barcena Zientzia Politikoak saileko monografikoaren arduraduna gonbidatu baitugu zehaztasunak ematera.

“Goi Aro Berriko Bizkaiko Jaurerriko Gobernuari buruzko” lanak, erakundeen historia ikertzen du. XVI. eta XVII. mendeetako Bizkaiko Ahaldun Nagusien familiaak eta familia arteko loturak nolakoak ziren miazten da. Horretarako lehenik talde zuzentzailea identifikatzea du helburu. Jaurerriko erakundeetako enfrontamendu nagusia izan zen Hiribilduen eta Lurralde Irekiaren arteko aurrez aurreko gatazkak balizko hiri- eta nekazaritza-eremuen elkarren kontrakoarekin parekotasunik ote duen ala ez jakin beharrak ere kitzikatzen du. Kargudun bakoitzeko batez besteko izendapen-kopurua 1,4koa izan zela kalkulatu, mugikortasun handia zegoela ondorioztatzen du. Hamar pertsonak baino ez omen zuten bost agintaldi edo bostetik gora bete. Gizabanakoen gainetik sendia nagusitzen zela esan daiteke. Bestalde, merindade bakoitzak Gernikan zeukan ordezkapena. Datuak arretaz so egitean berezitasunak nabarmen ageri dira. Denak ziren hautesle baina merindade bereko kargudunik ez zutela beti proposatu pentsatzera ailegatzen da ikertzailea. Ezkontza-agiriak eta oinarri sozio-ekonomikoak aztertzen ditu segidan. Familia batzuk nabarmentzen dira. Oro har, talde hauek Bizkaitik kanpoko eremuetara gutxitan zabaldu ziren. Baina nork bere esparruan ahalmen handia omen zuen arlo ekonomikoan, erakundeetan, ohorezko mailan, eta abar. Ahaldun Nagusiak errentatzaileak omen ziren. Horien azpian, ordea, gaitasun apalagoko talde zabalagoa zegoen. Ahaldun Nagusien eta bestelako kargudun guztien arteko tartea nabaria omen zen. Jatorri zaharreko leinuetako kideak ontzigintza bezalako jardueretan aritzen zirenean, garrantzi handiko merkatariek zentsutan inbertitzen omen zuten. Baina izendapen batzuk malgutasunez erabili behar direla ohartarazten digu. Batzar Nagusietako asistentziaren arabera, Ahaldun Nagusien abizenen eragina Hiribilduetako mugarrak baino askoz zabalagoa zela esan daiteke, ia Bizkia Nuklear osotik zabaltzen baitzen. Jaurerriko Gobernuak bi abizen nagusiak ez ziren lerrorik nagusien bidez agertu, Jaurerriko kanpoko goi-mailako gizabanakoekin lotu zirelako baizik. Puntu honetara heltzean, banan-banan, merindadeka abizen nagusien gorabeherak aztertzen dira. Azkenik, bandoak eta erakundeetan bandoek izandako luzapena aztertzen dira, eta ikertzailearen aburua da sendi nagusien kokapenak eta Jaurerriko udalerrien banaketak mantendu egin zirela oro har.

Jarraian, “Komunikazio Parte-hartzailea: Melel Xojobal kasua, Chiapas, Mexiko” artikulua dator. Laurogeiko hamarkadako eztaibada akademikoan itzalean gelditu zen komunikazio parte-hartzailearen praktika ikertzen saiatzen da. Gogoraziko

zaigu demokratikoa eta horizontala izatea direla komunikazio parte-hartzailearen bi oinarri sendoak. Konstatazio bat hasteko: komunikazioa gaur egun salgai dagoenez hedabideen papera aldatu du. Hala ere, salbuespenak badaude, Interneten sortu diren hedabide alternatiboak esaterako. Baina hedabideen erabilera demokratikoa murrizturik dago, oro har, hedabideen jabetza monopolikoa edo oligopolikoa eta baldintza teknologiko berriak direla medio. Berreskura al daiteke komunikazioaren esentzia demokratikoa? Eginkizun horretan berehalako garrantzia du komunikazioa giza praktikekin lotzeak. Ikertzailea Chiapasera abiatzen da hango gizarteko baztertuek, indigenek hain zuen ere, duten komunikazio-proiektua aztertzerantz. Han intentsitate txikiko gerla bizi dutenez, inkomunikazioa eta desinformazioa gerla-armatzat erabiliak izan direla gogorazten zaigu. Erantzuna da beraien komunikazio-kanala sortzea, grabagailu eta audio-zintak erabiliz, eta beraien komunitateetan entzunaldi sozializatuen bidez, zinta entzun eta horren inguruan berba eginez. Hortik abiatuta, kasu-azterketa erabiltzen da metodotzat. Proiektuaren sorburuaz arduraturik, hasteko, bi sortzaileak elkarriketatu dira. Bestalde, jakinik helburua indigenek berezko komunikazio-ereduak eraikitzea dela, Meleleko proiektutik at dauden bi komunitateetara joan behar izan da eta komunikazio-eragileak elkarriketatu dira. Baita Melel Xojobaleko eragileak ere trebakuntzaren garrantzia ezagutzeko. Erabiltzaileei dagokienez, esan behar da komunitateetako kiderik gehienak analfabetoak zirela, eta ondorioz, grabazioen bidez lan egin zela. Behaketak, bost hilabetez, audio-zinten ekoizpenaren prozesu osoa jarraituko du. Komunikazio parte-hartzailearen bidez sortzen den informazioak ez dauka botere politiko eta botere ekonomikoen eraginik. Gainera, komunikazio-eredu hau irekia eta ulerterreza gertatzen da. Orobat komunikatzaileen giza papera berreskuratzen da. Eta gutxiengoaren eskubideak babesten eta bermatzen ditu. Komunitatean zintak entzuteaz gain, eragileak hurrengo zintarako dituen proposamenak egiten ditu eta komunitateko jendearen galderak eta kezak jasotzen ditu. Edukien zerrendak ondoko hauek izaten dira: Chiapasen gertatutako albisteak; Mexikon gertatutako albisteak, eta Munduan gertatutako albisteak. Audio-zinten entzunaldiak lantzen dira. Komunikazio parte-hartzailean hartzaileak igorle bihurtzen dira kasu anitzetan. Oro har, “feed-back” efektua garatzen da. Komunikazio-prozesua zirkularra da. Edukiak lantzeko erabiltzen diren formak “hartzaile-igorleek” erabakitzen dituzte. Beraiek aukeratutako hizkeran eta hizkuntzan adierazten dira. Jatorrizko giza komunikatzailearen esentzia berreskuratzen da. Hala ere, komunikazio-mota hau garatzeko esparru txikiak beharrezkotzat ematen ditu ikertzaileak.

Hirugarrenik, *Uztaroren* zenbaki honetan argitaratzen hasten garen monografikoaren aurkezpena egiten digu I. Barcenak. Demokrazia parte-hartzailea du gaitzat. Demokrazia liberala eta, oro har, ordezkagarritasunean oinarritzen diren sistema politikoen krisia konstataturik, demokrazia birbizitzeko, boterea birbanatzeko eta erabaki-guneetatik at aurkitzen direnen aukerak bilatzeko, EHU, ikerketa- eta ikasketetan diharduen talde unibertsitario baten lehen emaitzak lirateke artikulukoak.

“Esfera publiko agonistikoaren alde” lana daukagu hasteko. Zentroko adostasunezko politikarantz joateko beharra aldarrikatzen duen diskurtsoa aztertzea du helburu, politika gero eta gehiago ari baita moralizatzen eta juridikotzen. Eta hori demokraziaren kaltetan da.

Esaten zaigu eskuinaren eta ezkeraren arteko mugak apurka-apurka lausotzen joan direla globalizaioaren erregimen neoliberalaren nagusitasunagatik eta kontsumo-kultura indibidualistaren ezarpenagatik. Gizartean bizitza demokratiko dinamikorik ez badago, identitate etniko, erlijioso edo nazionalistek hartuko dute haren lekua. Liberalismoak sinetsarazi nahi digu egungo gizartea prozedura moral arrazionalen bidez bidera daitekeela eta dauden gatazkak auzitegi inpartzialen bidez konpon daitezkeela erakutsi. "Deliberazio-demokrazia" berehala ari da eztabaida-gaiak inposatzen. Politikotasunak atzera egin du, eta juridikotasunak eta moralitasunak ordezkatu dute. Azken funtsean, liberalismoak politikoki pentsatzeko duen gaitasun faltagatik ari da gertatzen hori guztia. Guztiak bilduko dituen adostasunean sinesten du, eta, hortaz, antagonismoaren desagerpenean. Baina demokraziak behar bezala funtziona dezan, nahitaezkoa da posizio politiko demokratikoen arteko konfrontazioa. Horregatik defendatzen du autoreak "pluralismo agonistikoaren" eredia. Borroka agonistikoak aurkarien arteko konfrontazioa adierazten du. Demokrazia sendo baten baldintza nagusia dena, alegia. Bigarren tesi bat ere aztertzen du: "gogoetazko modernitatearen" fase berri batean sartu garela defendatzen duena, alegia. "Bizitzari eta heriotzari" lotutako gaiak. Baina gizarte tradizionalen ondokoetan ez dago gu/haiek moduko bereizketarik, orduan politika "berriro asmatu" behar da. Ezin da eman egungo hegemoniaren alternatibarik. Giza eskubideen diskurtsoak ezgaitasun hori indartzen duela ere ohartu beharko ginatke. Gaur egun, eduki liberala pribilegiatutzat eta elementu demokratikoa zaharkitutzat jotzen da. Politika ez dute ordezkatu maila altuagoko gai moralek. Gure eta haien arteko mugak ez dira desagertu. Baina "haiek" ezin dira aurkari politikotzat definitu, etsai moralizat baizik. Eta "gaiztotzat" jotzen baditugu, ezingo da eztabaida agonistikorik egin. Argi dago ere egungo arazoei ezin diegula aurre egin nazio-estatuaren mailan, testuinguru zabalago batean baizik. Aldi berean arriskutsua da gizateriaren ideia abstraktuan bakarrik oinarritutako herritartasun kosmopolitan pentsatzea. Federalismo "berri" bat edo "beheko federalismoa" deiturikoa izan daiteke irtenbindea.

"Tokiko praxietan oinarritutako demokrazia parte-hartzaileak" lanak Andaluziako lau esperientzia aztertzen ditu. Zientzia ezin da izan gizartea albora utzita ezagutza objektiboa sortzen duen zerbait, aitzitik jendearekin batera beharrak eta gogobetetzaileak eraikiko dituen zientzia behar dugula esanez hasten da. Parte-hartzea, hirurogeita hamarreko hamarkadan, ezarritako gizarte-ordena deslegitima zezaketen gizarte-tentsioen kontrolari lotuta zegoen. Demokrazia ireki zenez geroztik, demokrazia erabat demokratizatzea da kontua. Maila pribatuaren eta maila estatalaren artean espazio batzuk sortzen dira: sozializazio-guneak, alegia. Parte-hartze hori informazio, laguntza eta kontsulta soiletik harago doa. Ardatz nagusia izan behar da partaidetzaren bidez politika integraletan lan egiteko eremutzat tokikotasuna hartzea eta balioestea. Ezparik gabe komplexutasunaren ideiarekin egingo dugu topo. Garbi egon behar dena hauxe da: eremu identifikatzaileak, erlazionatzaileak eta historikoak berreskuratu behar direla. Parte-hartze horrek errealitatearen gizartea eraikitzeke prozesuetan oinarrituta egiten du lan. Egunerokotasun demokratikoa sortzeko orduan Estatu demokratiko parte-hartzailea berriro asmatzea da eginkizun. Hizketa/elkarrizketa izan behar da garrantzi handieneko mekanismoa. Eta zer gai jotzen dira Estatu demokratiko parte-hartzailea berrirako garrantzizko? Parte hartzeko plangintza. Autodependentzia sortzea. An-

tolaketa- eta erakunde-mailen arteko artikulazioa egitea. Kultura profesional espezializatuaren eta herritarraren arteko lotura. Horizontalki antolatzen bagara eta herri-kulturen jakinduria aintzat hartzen badugu, garaipena lor dezakegu, esaten zaigu. Deszentrazioa behar da. Autonomia indibidualik ez da izango besteen autonomiarik gabe. Politikarako eta gizarte-ekintzarako lekua utziko diguten espazio integratuak behar dira. Subjektuen, denboren eta espazioen alteritatea. Sistema autopoietikoak. Beren eraikuntza eta autogestioa ziurtatuko duten gizarte-sareak. Herri-kulturetan sortu behar diren gizarte-identifikaziorako estrategiak. Gertutasuna. Ekintzak boterearen autogestio kolektiboan oinarritu behar du. Horretarako, lehenik, erresistentzia behar da. Parte hartzeko nahia. Parte hartzeko gaitasuna. Parte hartzeko jakitatea. Prozesu ideia berreskuratzen da. Dinamika ideia, emergentearen ideia, instituitzetik sortzen denaren ideia. Bizi-kalitateaz hitz egitea. Gabeziak gain, giza potentzialitate indibidual eta kolektiboak ageri dira. Errealitate urbanoan eremu kontrajarriak elkarrekin lehian bizi dira. Horregatik konplexutasunaren paradigman oinarrituta lan egin beharra dago. Gizartearen esku-hartzean ezohiko baliabideak erabili beharra. Subjektibotasunaren aldarrikapena. Erabakiak elkarrekin hartzea eta erabakiak kudeatzea eta gauzatzea sustatu behar dugu. Komunikazioaren nagusitasuna ezinbestekoa gertatzen da gizarte-praktiketan. Herri-kulturek bakarrik lortzen dute globalizazioaren aurrean koherentziaz bizirautea. Erlazioak denboran eta espazioan bizitzeko moduek hartzen dute lehentasuna.

“Hiritarren parte-hartzea Europako toki-gobernuetan: zenbait ikasbide” artikulua gizarte postindustrialetan erakundeak demokratikoki eraberritzeaz ari da. Estatuetan dagoen toki-autonomiaren maila, eskumenei eta finantzei dagokienez, arras diferentea agertzen da batean edo bestean. Gestio Publiko Berriaren parametro, oinarri eta metodologiak ere kontsideratzen dira. Enpresa-kudeaketarekin antzekoa agertzen zaigu. Hiritarren gobernantza ez da lantzen ari. Tokiko erakunde politikoez euren balioa eta legitimitate ordezkatzailea zalantzan jarrita daukate. Horren guztiaren aurrean, azken urteotan, Europa osoko tokian tokiko gobernu-buru anitzek, alkate eta udal-teknikari saiatuek, euren inguruan gertatzen denari adi, bultzatu egin dituzte herritarrek parte hartzeko esperientzia ugari. Batzuek herritarrak udaleko gorabeheretan parte izan daiteez lortu nahi dute. Beste batzuek, herritarren arteko eztabaida informatuan jartzen dute arreta guztia. Azkenik, badira ere herritarrak politika publikoaren prozesu osoan inplikatzeko saiatzen ari direnak. Eskuineko gobernuak parte-hartze tradizionalagoak bultzatzen dituzte. Ezkerreko konprometituagoak, noski. Herrialde bakoitzean hiru egoera gertatu ohi dira. Hasieran, zatiketa eta koordinaziorik eza. Bigarren fasean, eztabaida eta hausnarketa. Eta hirugarrenean, herritarren parte-hartze instituzionalizatua agertzen da. Historia demokratiko aberatsa duten herrietan ere, oro har, zinegotzi anitzek errezeloz ikusten dituzte praktika berri hauek. Gero eta exigenteagoa den gutxiengo bat egonda ere, herritar gehienek muzin egiten diote parte hartzeari. Gainera, burokrazia-jokabide huts bilaka daiteke, helburu ezutuak lortzeko erabil daiteke, huts egin dezake. Erresuma Batuan herritarren partaidetza-politika laborismo berriarekin publiko bihurtu da. Eta Alderdi Liberal Demokratikoari esker, gero eta politika aktiboagoa eta hurbilagoa gauzatzen da. Hala ere, Blair-en gobernuak aldaketa hau guztia ia boluntario gisa plateatzen du, ez du toki-politiken egiturak eraberritzeko inolako neurririk inplementatzen. Hiru tresna edo eduki

nagusi behar ditu erreformak. Gobernuen aurrekontuaren esleipena eta kontrola. *Audit Commision* edo kontuen auzitegia da horren adierazle nabarmenena. Baina praktikan Gobernuaren aliatuak onena bihurtzen da, errendimenduaren helburuak eta ebaluazio-irizpideak gobernuak ezartzen dituelako. Bigarrena, hots, herritarren parte-hartzea sustatzeak, alegia, etekin hobekak izan ditu. Hala ere, sustapen hori ez bide dago zuzenduta herritarrek udal-erabakietan parte har dezaten, aitzitik, agintariak herritarren iritzia hobeto kontrolatzeko erabilera omen du. Hirugarrenak, ordezkariak politikorako bide berriak jorratzeak edo esperimintatzeak, alegia, oraingo bide laburra egin du eta fase esperimintalean egonik, zalantza eta kritika gogorei aurre egin behar die. Joera berbera agertu izan da beste herrialde batzuetan ere, besteak beste, Europako iparraldekoetan, Holandan eta Alemanian.

“Porto Alegreko (Brasil) aurrekontu parte-hartzailea: hirugarren bidea, hirugarren munduan?” lanak esperientzia eredugarri bat aurkezten digu. Aurreko sistema politiko bipolarra mugaz josita aurkitzean, egoera berri bati eman zitzaion txanda ideologia berri baten premia nabarmenduz. Estrategia horretan globalizazio ekonomikoa eta teknologikoa funtsezko bihurtzen dira eta haiei loturik gizartearen destradizionalizazioa ere. Espazioaren eta denboraren arteko separazioa eskatzen da. Baina hori *hirugarren bidearen* ikuspegi eurozentrikoan gertatzen da. Orain arte burututako esperientzia iraultzaileek aldatu duten gauza bakarra, azken batean, «gutxi batzuen ugaritasunaren mundua, gutxi guztientzako munduaren truke» egitea izan da. Latinoamerikatik heldu zaizkigun politika parte-hartzeilearen formula berriek, orduan, ezkerrean berpizte kritikoa adierazten al digute? Potro Alegreko hiria erreferentzia bilakatu da azken hamabost urteotan bertan demokrazia parte-hartzaileak urratutako bidea dela eta. Klientelismoa izan zen Brasilgo errepublikan bezala udalerrietan ere nagusitzen joan zena 80ko hamarkadan diktadura militarra amaitzean. Baina, alboan, gizarte-mugimendu indartsuak bideratzen hasi ziren auzoetako oinarrizko azpiegiturak, eskola eta osasun-zentroak, kale asfaltatuak eta etxebizitza duinak, hirigintza antolatua eta garraio publikoa, hots, bizi-kalitatea erreibindikatzeko. Klientelismoaren aurkako politika berri bat martxan jartzen joan zen, bereziki udaletan autonomia eta finantziario berriak erabiliz. Horri loturik PT alderdia azalduko da, noski. Aurrekontu parte-hartzaileak martxan jartzea horren guztiaren lekuko. Hala ere, parte-hartzea ez zen hasiera batean berdin ikusten udaletik, alderetik edo kaletik. Prozesu zenbait bertan behera gelditu zen logika-diferentzia horientatik. Pluraltasunean, gardentasunean eta barne-demokrazian aurkitzen joan dira gatazkak bideratzeko prozedurak. Baina gaur egun ere, nekazaritza-erreforma edo *Fême Zero* programa ez doaz bide onetik. Mafia edo Amazoniako jauntxoak zigorgabetasuna ere ez dira gelditu. Gainera, berriago kohabitazioaren mamua gauzatzen joan daiteke. Esperientzia berri honekin herria kudeaketa publikoaren protagonista bihurtzen doa. 1988an PT alderdiak hauteskundeak lehenengo aldiz irabazi zituenean Porto Alegren mila erakunde komunitario inguru identifikatu ziren. Bistan dago, bada, herritar ez antolatuen parte-hartzea bilatzea eta lortzea izan dela esperientzia horren alderik deigarriena. Eta elkartasunezko bizitza alternatiboaren eraginez, herri-antolaketa autogestionatuaren formak sortu dira. Hain garrantzizkoa izan da egingakoa, non Fogaça oposizioko hautagaiak aurrekontu parte-hartzaileen politika eta Mundu Gizarte Foroa mantentzeko hitza eman baitu. Errealismorako datu bat ere emango dugu: Porto Alegren milioi eta erdi biztanletatik 18.000 milak parte hartzen

du esperientzia berrian. PT alderdiko ordezkariak hiritik estatu federalera ere eramaten saiatu dira. Eskuinak Tribunaletara jo zuen hori gelditzeko. Tribunalek kautelazko dekretuz urte eta erdian Estatuaren eraikinak eta lokalak ezin zirela erabili zuzeneko demokraziaren praktika horietarako erabaki zuten. Aurrekontu parte-hartzailea lanabes demokratikotzat jo behar da. Arriskuak ageri ditu.

“Demokrazia parte-hartzailea: ezkerren helburu berria?” lanak erakusten du nola ezkerreko irtenbide berri bat ematen ari zaion demokraziaren krisiari. Urtetan, zuzenbidezko estatua benetan demokratizatzea, hots, boto-eskubidea biztalaria guztira zabaltzea izan zen erronka politikoa. XIX. eta XX. mendeetan, berriz, langileak ordezkari politikorako ailega zitezten politikaren profesionalizatzea izan zen ezkerren aldarrikapena. XX. mendean garaile bat egon bada, hori demokrazia ordezkari izan da. Dena dela, udaletan parte-hartzearen zabalkundea eskatzen zutenak demokrazia berrindartzeko, gero eta gehiago izan dira 70eko hamarkadatik aurrera. Zer helburu bilatzen dute herritarren parte-hartzea astintzeko esperientzia hauek? Europan zabaldua zegoen sozialismo errealearen proiektua utzita, Porto Alegren lausotu zuen begirada ezkerak. Hasieran, makropolitikak zuen garrantzia, eta boterea (Estatuan) konkistatzea zen eskaera; orain, mikropolitika da nagusi, eta estatua ez da epizentroa. Abangoardia zegoen lekuan gizarte zibila kokatu da eta horren eginkizuna bilakatu da garrantzizkoena. Politika publikoaren azterketak fasean bereizten dira: dimentsio sinbolikoa eta kontzeptuala; dimentsio substantiboa eta dimentsio operatiboa. Azken hori parte-hartzearen funtzionatzeko moduz arduratzen da. Mekanismo parte-hartzailearen dimentsio substantiboan lau talde nagusi bereizten dira: oinarri sozietarioa (honetakoak dira kontseilu eta batzorde sektorial asko), oinarri pertsonalekoa, oinarri mistokoak (pertsonek eta elkarteek partaidetza konbinatzen dutenak, alegia) eta lurralde-berezitasunetatik datorrena. Mekanismo parte-hartzailearen dimentsio operatiboaz zerbait gehiago adierazten da. Funtzioak bereizten dira: informatiboa, kontsultarakoa, koerabakitzatzailea, erabakitzatzailea eta kognitiboa. Nola sintetizatu demokraziaren gaia? Mutur batean demokrazia ordezkari izan jarriaz, eta bestean, zuzeneko. Eta continuum bat egongo litzateke bi mutur horien artean. Suitza izan da politika kontserbadore batetik abiatuta, demokrazia ordezkari izan eta zuzeneko hainbat mekanismo uztartu dituena. Erreformismoak ere bertuteak ikusi dizkio politika parte-hartzaileari: administrazioak eraginkorragoak bilakatu ditu. Baina badira ere mundu globalizatu hau zuzentzen duten indar neoliberaleri aurre egiteko tresna baliagarritzat hartzen dutenak.